

**Filosofia eta Letretako
eta Zientzietako Doktore eta
Lizentziadunen Elkargo Ofizialetako
ESTATUTUA**

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua *Egoera juridikoa.*

1. Filosofia eta Letretako eta Zientzietako Doktore eta Lizentziadunen Elkargo Ofizialak Legeak babesturiko eta Estatuak onarturiko Zuzenbide Publikoko Korporazioak dira, eta berezko izaera juridikoa eta euren helburuak betetzeko gaitasun osoa dute.

2. Elkargoak hauek honako Estatutu honek, Kontseilu Orokorraren Estatutuak, Elkargo Ofizial bakoitzeko Estatutuek eta Barne Araudiak arautuko dituzte.

3. Estatutu orokor honek indarrean dagoen Lanbide Elkargoei buruzko Legean jasotzen diren oinarritzko printzipio juridikoak aplikatu eta garatzen ditu, Filosofia eta Letretako eta Zientzietako Doktore eta Lizentziadunen Elkargo Ofizialen autonomia, nortasun juridikoa eta aipaturiko titulu akademikoetatik (edo Unibertsitateko Fakultateek emandako eta tradizionalki Filosofia eta Letrak edo Zientziak izendapena hartu dutenetatik banatutako maila bereko tituluetatik) eratorritako helburu profesionalak betetzeko gaitasun osoa bermatzearen.

4. Elkargo hauek dagokien Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin harremanetan egongo dira, bertako Organo Eskudunaren bitartez, eta, hala dagokionean, Estatuko Administrazio Zentralarekin, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren bitartez.

2. artikulua *Antolakuntza.*

1. Elkargoen Kontseilu Orokor batek, Madrilen egongo denak, Elkargoen jarduerak koordinatuko ditu. Espainiako Elkargo guztien ordezkaria izango da Estatu mailan eta interes orokorreko kudeaketak egingo ditu.

2. Elkargo bakoitzari dagokion lurraldean ezin izango da lanbide berarekin lotutako beste Elkargorik sortu.

3. artikulua *Kideak.*

1. Lehen artikuluko 3. atalean aipatzen diren tituludunek soilik izango dute Elkargo hauetako kide izateko aukera.

2. Elkargoek izan dezaketen kide kopurua mugagabea izango da. Hortaz, eskaera egiten duen oro onartu beharko da, baldin eta arauz xedatutako baldintzak betetzen baditu.

4. artikulua *Helburuak.*

Elkargoen funtsezko helburuak honako hauek dira: lanbide jarduera antolatzea, irakaskuntza funtzioari dagokionez bereziki, haren ordezkari izatea eta elkargokideen interes profesionalak defendatzea. Hau guztia Administrazio Publikoaren eskumena errespetatuz, funtzionario harremana dela eta, eta afiliatzeko eta ekintza sindikaleko eskubidearentzako kalterik gabe.

5. artikulua *Eskumena.*

Elkargo bakoitzari dagokio, beronen eskumenen eremu estuan (probintzia mailan edo haratago), honako funtzio hauek betetzea:

- a) Arau propioen bidez talde osoaren interesen alde egitea.
- b) Bere eginkizun soziala kontuan izanik, lanbidearen ordezkari eta defendatzaile izan Administrazioaren, Erakundearen, Auzitegien, Entitateen eta norbanakoen aurrean, lanbidearen interesak ukitzen dituzten auzietan parte hartzeko eskubidea izanik eta Legearen arabera eskabide eskubidea erabiltzeko aukera izanik, eta lanbidea defendatzeko bidezkotzat jotzen diren legezko aldaketak bultzatzea.
- c) Elkargokideen duintasun sozial eta ekonomikoa sustatzea, horretarako prestakuntza osoa eta etengabeko hobekuntzaren alde lan eginez, Elkargoen eskumenen esparruaren barruan kideen lanbide jarduera (euren titulu akademikoei jarraiki burutzen dutena) antolatuz, jarduera hori Legeari eta

norbanakoen eskubideei zor zaien etika eta errespetua gordez burutzen dela zainduz, Elkargoaren eta lanbidearen arloan diziplina eskumena erabiliz.

- d) Uneoro Elkargoaren antolamendu eraginkorra eta demokratikoa bermatzea. Helburu horrekin, eta Lanbide Elkargoei buruzko Legearen eta Estatutu honen arabera, honako neurri hauek hartu ahal izango ditu: Estatutu berezia eta Barne Araudia lantzea, hala balegokio Probintzia mailako Elkargoak eta Ordezkaritzak sortzea (dagokion lurraldean) eta horiek osatzen dituzten elkargokideen espezialitateei buruzko gaien berri ematea eta bideratuko dituzten atal profesionalak eta batzordeak sortzea, euren jarduteko modua erraztuz.
- e) Elkargoaren interesekoak diren jarduera eta zerbitzu komunak sustatzea (lanbide, prestakuntza, kultura, laguntza, aurreikuspena edo antzekoei loturiko jarduera eta zerbitzuak, hain zuzen ere), zuzenean edo Aurreikuspeneko Mutualitatearen bidez, kasuan kasu.
- f) Legez aitortutako beste Elkargo edo Entitate batzuekin batera zerbitzu komunak antolatzea (kultura, gizarte, ekonomia eta administrazio arlokoak).
- g) Eginkizun profesionalak betetzeagatik, edo horiek direla eta, elkargokideei legez dagozkien eskubideak erabiltzean babesa ematea.
- h) Elkargokideen arteko harmonia eta lankidetzaren sustatzea, eta euren arteko lehia desleiala eragozteko, eta lanbidea dela-eta, euren artean sortzen diren auzietan adiskidetzeko edo arbitrajeko bideak erabiliz esku hartzea.
- i) Lanbide intrusismoa saihesteko neurriak hartzea, eta Gobernu Batzordeak jakiten dituen kasuak Administrazioaren eta Auzitegien aurrean salatzea eta jarraitzea, eta hori dela-eta beharrezkoak diren jarduketak burutzea, baita lanbide jarduketaren aitortzearen egiaztapen eraginkorra ere, Elkargoaren edo Kontseilu Orokorraren zuzeneko ekintzaren bidez.
- j) Administrazioari laguntzea Ikastetxe pribatuetako irakasleek arauko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzean (titulazioari, lanaldiari eta elkargokide izateari dagokionez hain zuzen ere). Helburu horrekin, Estatuko Hezkuntzaren Ikuskaritzak aipaturiko baldintzen berri ematen duen dokumentazioa helaraziko dio dagokion lurralde eremuko Elkargoari (ikasturteko lehen hiruhilekoan). Gobernu Batzordeak, dokumentu horien edukia aztertu ostean, lanbidean aritzeko beharrezkoak diren baimenak emango ditu.
- k) Lanbidean aske jarduteko gutxienezko ordutegiak arautzea.
- l) Elkargokideentzat ahalik eta enplegu mailarik handiena lortzen saiatzea eta dagokion Autonomia Erkidegoan eta Estatu mailan koordinatutako Lan Poltsak sortzea.
- m) Elkargoaren ekonomia kudeatzea, eta kargak beharrezko kuoten eta ekarpenen

- bidez zuzen banatzea. Horretarako, kuotak bildu, gorde eta aurrekontuaren eta beharrezkoen arabera banatuko ditu; sarrera eta irteeren kontularitza zehatz eta argi egingo du, eta Mutualitatearen funtsak bildu eta kudeatuko ditu.
- n) Lanbideko jardueran nabarmentzen diren elkargokideak saritzea, Estatuak edo beste Entitate batzuk ezarrita dituzten sarietarako proposatu, hala badagokio, eta diziplina eginkizuna erabiltzea.
 - o) Tituludunen egoerari buruzko azterlanak burutzea, estatistikak lantzea eta txostenak egitea eta eskatzen zaizkion edo bere ekimenez formulatzea erabakitzen dituen beste hainbat jardura.
 - p) Dagokion lurralde eremuko Administrazioaren Kontseilu edo Erakunde aholku-emaileetan parte hartzea (bere eskumeneko gaiei dagokienean), eta Unibertsitateko partaidetza sozialeko organoetan ordezkaritza izatea.
 - q) Aginpideekin harremanetan egotea eta haiei hezkuntza eta kultur jarduerari buruzko informazioa eskatzea, dagozkien eskumenen esparruan.
 - r) Indarrean dagoen legeriarekin bat eginez, ikasketa planen diseinuan parte hartzea, 1. artikuluko 3. atalean aipatzen diren tituluak (Elkargoetako kide egiteko eskubidea ematen dutenak, hain zuzen ere) ematen dituzten Ikastetxeetako antolakuntzako arauen berri ematea, eta tituludun berriei lan mundurako sarbidea errazteko beharrezkoa den informazioa prestatzea.
 - s) Irakaskuntza Ertaineko irakasle berriak hautatzeko irizpideak lantzean entzuna izatea.
 - t) Lanbide jarduneko hezkuntza maila dagozkien ikasketa planak diseinatzerakoan entzuna izatea.
 - u) Lege xedapenek esleitzen diren diezazkioketen gainerako zeregin guztiak, edo elkargokideen interes profesionalen aldekoak diren guztiak.

II. KAPITULUA

Elkargokideena

I. Atala: Elkargoko kide egitea

6. artikulua *Baldintzak.*

1. Estatutu honetako 1. artikuluko 3. atalean eskatzen den titulazioa eskuratu duenak Elkargo ofizial bateko kide egiteko eskaera lehen aldiz egiten duenean, dagokion titulu akademikoa aurkeztuko du. Titulurik ezean, titulua jasotzeko

eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztuko du eta bi urteko epea izango du titulua aurkezteko eta Elkargoan erregistratzeko.

2. Doktorea edo Lizentziaduna jadanik beste Elkargo Ofizial bateko kide baldin bada, aurreko baldintza aldatu egingo da, eta elkargo horretako kide dela baieztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du. Horrekin batera, Elkargoz aldatzeko eskaera edo, hala dagokionean, Elkargo bat baino gehiagotan egoteko eskaera egin beharko du.

3. Eskatzaileak kasuan kasuko Elkargoak bertako kide egiteko edo Elkargoz aldatzeko finkatuta duen kuota ordaindu beharko du.

7. artikulua *Irakaskuntzan jardutea.*

Funtzio publikoari dagokion eta indarrean dagoen legeriaren eraginpean dauden irakasleak salbu, Estatutu honetako 1. artikuluko 3. atalean aipatzen diren unibertsitate tituludunek nahitaez dagokien lurralde eremuko Elkargoan izena eman beharko dute irakaskuntzan jardun ahal izateko.

8. artikulua *Alta hartzeko akordioa.*

1. Elkargoko kide egiteko eskaera dagokion Elkargo Ofizialean egingo da.

2. Elkargo bakoitzeko Gobernu Batzordeak dagozkion egiaztapenak burutuko ditu, Elkargoko kide egiteko eskaeren inguruko erabakiak hartu aurretik.

9. artikulua *Ukatzeak, etenaldiak edo helegiteak.*

1. Kolegiatzea ondoko kasuetan bakarrik ukatu ahal izango da:

a) Epai irmo eta atzeraezin batek eskatzailea lanean aritzeko gaitasunik gabe utzi duelako.

b) Estatutu honetako 17. artikulua aurreikusten duen bezala, Elkargoak zigorra jarri duelako (zigorrak dirauen bitartean).

2. Akordioa honako kasu hauetan etengo da:

a) Eskatzaileak beharrezko dokumentazio guztia aurkezten ez duen bitartean edo aurkezturikoa benetakoa edo nahikoa ote den zalantzan jartzen baldin bada.

b) Eskatzaileak beste Elkargo Ofizial batzuetan arauzko kuotak ordaindu ez baldin baditu.

3. Akordioa ezin izango da eten eskatzailea diziplinako espedientepean dagoelako. Horrelakoetan, eskatzaileak Elkargo instrukziogilean alta emanda jarraitu beharko du, ebazpen irmoa izan arte.

4. Eskatzaileari, gehienez ere hilabeteko epean, behar bezala arrazoitutako ukatzea edo behin behineko etenaldiaren berri jakinaraziko zaio. Hark, berriz, helegitea aurkeztu ahal izango du, Araudi honetako 45. artikuluan aurreikusten den moduan.

10. artikulua *Lekualdatzeak.*

1. Elkargo batetik besterako lekualdatzea interesdunari dagokion Elkargoaren bidez egingo da. Jatorrizko Elkargoak kideak bere betebeharrak bete dituen ziurtatzen duen egiaztagiria egingo du eta Elkargo berrira igorriko du, beharrezko dokumentazioarekin batera.

2. Elkargokideen antzinasunari datzekion eskubideen eraginetarako, antzinasuna edozein Elkargotan izandako alta egoera horren aldiberekoak ez diren aldi guztiak batuz kalkulatu da eta behin bakarrik zenbatuz kolegiatze anizkuneko aldia.

11. artikulua *Baja.*

Elkargokideek egoera hori galduko dute:

- a) Norbanakoak eskatuta, Estatutu honetako 9. artikuluko 3. atalean xedatutakoa salbu.
- b) Arauzko kuotak ez ordaintzeagatik (hiru hileko epea eta luzapeneko beste bat). Ondorioz, mutualista izateari utziko dio eta dagozkion eskubideak galduko ditu.
- c) Elkargoko kide egiteko edo elkargoz aldatzeko kuota dagokion Elkargoan hiru hileko epean (aurreko artikuluan aipaturiko dokumentazioa jasotzen den unetik aurrera) ez aurkezteagatik eta ez ordaintzeagatik.
- d) Diziplina zigor gisa, Estatutu honetako 17. artikulua arabera.
- e) Epai irmo batek lanean jarduteko gaitasunik gabe utzi duelako.

12. artikulua *Itzultzea.*

1. Elkargoren batean baja eman zaion Doktore edo Lizentziadunak berriro ere bazkide izan nahi badu (Elkargo berean edo beste batean), Estatutu honetako 6. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

2. Eskatzaileek, hala dagokienean, eta 6. artikuluan aipatzen den kuotaz gain, ordaintzeke dauden hileko kuotak ere ordaindu beharko dituzte (ezin izango dira sei baino gehiago izan).

II. Atala: Elkargokideen Betebeharrak eta Eskubideak

13. artikulua *Betebeharrak.*

Elkargokideek honako betebeharrak hauek onartuko dituzte:

- a) Euren funtzioak etikaz eta trebetasunez betetzea.
- b) Elkargoko jarduerak eta arazoak ezagutzeko interesa izatea eta Estatutuko betebeharrak hobeto bete daitezen ahalegintzea.
- c) Nahitaez eskatzen diren aitorten profesionalak eta gainerako dokumentuak

- bere garaian aurkeztea.
- d) Elkargoari, hamabost eguneko apean, etxe eta auzo aldaketen berri ematea.
 - e) Erakunde ofizialetan edo edozein Entitatetan betetzen duten lanbidearekin lotura duten karguen berri ematea Elkargoari.
 - f) Elkargoari jakiten dituzten intrusismo eta ustelkeria kasuen berri ematea.
 - g) Ezarritako kuotak eta tasak arauzko epeen baitan ordaintzea.
 - h) Batzorde Orokor edo sailekoetan, eta Elkargoak deitutako hauteskundeetan parte hartzea.
 - i) Euren karguak eta Elkargoak agindu dizkien eta beraiek onartu dituzten eginkizunak zintzo eta arduraz betetzea.
 - j) Gobernu Batzordearen akordio eta erabakiak betetzea, jar daitezkeen helegiteei kalterik egin gabe.

14. artikulua *Eskubideak.*

Elkargokideek honako eskubide hauek dituzte:

- a) Elkargokide izaten jarraitzea, Estatu honetako 11. artikuluan aurreikusitakoa salbu.
- b) Elkargoaren babes egokia izatea lanbidean jardutean, edo haren eraginez, agintarien, Entitateen edo norbanakoen aurrean.
- c) Lanbide jardunaren inguruko eskaera justuak direla-eta, Gobernu Batzordearen ordezkari eta laguntza lortzea. Batzordeok Elkargokideen eskaerak entzungo dituzte, euren ordezkari izango dira eta, bidezkoa balitz, eta interesdunak hala eskatuz gero, haiei irekiko lekizkiekeen espedienteetan esku hartuko dute.
- d) Elkargoak egiten dituen hauteskundeetan parte hartzea, botoa emanaz edo hautagai izanez, hauteskunde arauekin bat.
- e) Elkargoko lokalak lanbidearekin edo Elkargoarekin zerikusia duten bilerak edo ekitaldiak burutzeko erabiltzea, Gobernu Batzordearen baimenarekin.
- f) Estatutuen arabera sor daitezkeen Batzorde edo Ataletan parte hartzea.
- g) Elkargoak eskaintzen dituen zerbitzu eta jardueraz baliatzea.
- h) Elkargoaren gorabeheren berri izatea, publizitatearen bidez nahiz idatziz, edo norbera bertaratuta hala eskatzen duenean.
- i) Elkargoko Mutualitatearen aurreikuspeneko erakundeetan parte hartzea,

bertako Araudiak ezartzen dituen baldintzen arabera.

- j) Estatutu honetan aurreikusten diren laguntza, sari eta ohoreak jasotzeko aukera izatea.
- k) Gobernu Batzordeari, idatziz, iradokizunak, eskaerak edo kexak aurkeztea, 15. artikulua dioenaren arabera.

15. artikulua *Iradoizunak, eskaerak edo kexak.*

1. Aurreko artikuluan aipatu diren eskubideez gain, elkargokideek honako hauek ere izango dituzte, arauzko bideei jarraituz erabili beharko dituztenak.

- 1- Elkargo Ofizialaren jardueri buruzko iradokizunak Gobernu Batzordeari aurkezteko eskubidea.
- 2- Oro har, lanbidea hobetzeko eskaerak egiteko eskubidea.
- 3- Kexatzeko eskubidea:
 - a) Izapidetze akatsengatik. Bereziki, akats horien ondorioz finkatutako nahitaezko epeak geldiarazten badira edo arazoa behin betiko konpondu aurretik konpon daitezkeen izapideak egiten ez badira.
 - b) Lanbidearentzat, oro har, kaltegarritzat jotzen diren edo eskubide pertsonalak kaltetzen dituztela uste den neurrien aurka. Interesdunek, betiere, egoki deritzoten edozein helegite aurkeztu dezakete.

1. Kexa arau-hauste edo okerraren erantzuletzat hartzen den organoari aurkeztuko zaio. Hartzen den erabakiaren berri kexa azaldu zenetik hilabeteko epean emango zaio interesdunari. Haren aurka ezin izango da helegiterik aurkeztu. Hala ere, kexaren arrazoiak alegatu ahal izango dira, hala dagokionean, helegiteak ebazpen nagusiaren aurka erabiltzen direnean.

2. Eskaeren inguruko erabakia Gobernu Batzordeek hartu beharko dute edo, bestela, gaia eskuduntza duen Erakunde nagusiari aurkeztuko zaio. Hark txostena burutuko du hamabost eguneko epean, premiazkoa balitz, edo hogeita hamar eguneko epean, hala ez balitz.

3. 5.000 kide baino gutxiago dituzten Elkargoen kasuan, gutxienez kideen

%5ek sinatzen duten edozein proposamen, edo 5.000 kide baino gehiagokoetan, %2ek sinatzen dutena, nahitaez izapidetu beharko da, Gobernu Batzordea beronen edukiarekin ados egon ez arren, eta Batzar Nagusira eramango da. Ohiko Batzar Nagusirako deia egiteko bi hilabete baino gehiago faltako balira eta gaia presakoa balitz edo Gobernu Batzordearen zentsura ekarriko balu, ezohiko Batzar Nagusirako deia egin beharko litzateke, hogeita hamar eguneko epean (eskola egunak kontuan izanik).

III. Atala: Diziiplina erregimena

16. artikulua *Hutsegiteak.*

1. Gobernu Batzordeak Elkargokideei zigorrak ezar diezazkieke lanbideko eginbeharrak betetzen ez badituzte, gainerako kideak errespetuz tratatzen ez badituzte edo, oro har, Estatutu honetan adierazten diren eginbeharrak betetzen ez badituzte.

2. Hutsegite arinak izango dira, dagozkion eginbeharrak betetzean, Elkargokideak zabarkeria arinaz jokatu duela agertzen dutenak.

3. Ondokoak hutsegite larritzat hartuko dira:

- a) Hutsegite arin berengatik hiru aldiz zigorra jaso ondoren berriz ere hutsegite arin bat egitea.
- b) Aitorpen profesionaletan egia desitxuratzea.
- c) Amaitu gabe dauden kalifikazio aktak sinatzea edo berreslearen kontrol eraginkorraren pean ikasturtea igaro ez duten ikasleak barne hartzen dituzten kalifikazio aktak sinatzea.
- d) Ikasle edo kideenganako tratu txarrak.
- e) Karguari dagozkion eginbeharrak ez betetzea edo lanean utzikieriaz jardutea, eta horrek lanbideari nabarmen kalte egitea.

4. Hutsegite oso larritzat hartuko dira Elkargokide izatearekin bateraezinak direnak. Nolanahi ere, sei hilabete edo gehiagoko bi etete zigorren ondoren egindako hutsegitea oso larritzat joko da.

17. artikulua *Zigorra eta preskripzioa.*

1. Hutsegite arinek egin eta hilabetera preskribituko dute; larriek sei hilabetera eta oso larriek, urte batera.

2. Hutsegite arinek honako zigor hauek izango dituzte: agiraka pribatu soila edo ofiziozko ohartarazpena eta oharra norberaren espedientean. Espedientean azken hutsegitearen berri jaso zenetik sei hilabete igarotakoan, bertan jasota dauden hutsegite arinak baliogabetuko dira.

3. Hutsegite larriek honako zigor hauek jasoko dituzte: agiraka publikoa edo elkargoko eta/edo lanbideko eskubideen etetea (gehienez ere urte baterako eta udalerrri, probintzia, autonomia erkidego edo estatu mailan). Norbere espedientean azken hutsegite larriaren berri jaso zenetik urtebete igarotakoan, bertan jasota dauden izaera bereko hutsegiteak baliogabetuko dira.

4. Hutsegite oso larriak elkargoko eta/edo lanbideko eskubideak etenez zigortuko dira (urte bat eta bost urte artean).

5. 3. eta 4. ataletan aipatzen diren eteteek ez dute inolaz ere mutualista bezala lorturiko eskubideengan eraginik izango.

18. artikulua *Bermeak.*

1. Interesdunari entzunaldia egin gabe ezin izango da inongo zigorri buruzko erabakirik hartu.

2. Ustezko hutsegite larri edo oso larrien kasuan, arauzko diziplina espedientearen izapidetu beharko da.

3. Ustezko arau-hauslea Gobernu Batzordeko kidea balitz, Elkargoen Kontseilu Orokorrek espedientearen berri izango du.

19. artikulua *Helegiteak.*

Edozein zigor errekurritu ahal izango da, Estatutu honetako 44. artikulua xedaturikoaren arabera.

IV. Atala: Laguntzak, sariak eta ohoreak

20. artikulua *Laguntzak.*

1. Elkargoetako eta Kontseilu Orokorreko aurrekontuetan elkargokideei laguntzeko diru izendapena egin ahal izango da.

2. Kontseilu Orokorrari ezin izango zaio euren Elkargoak, ahal duen heinean, bidezko laguntzarik eman ez dien elkargokideentzako laguntza ekonomikorik eskatu.

21. artikulua *Sariak eta ohoreak.*

1. Nor bere Elkargo Ofizialak proposatuta, eta "Estatuko Aldizkari Ofizial"ean eginiko deialdi publikoaren arabera, Kontseilu Okorrak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari Alfontso X.a Jakintsuaren Ordena Zibila jasotzeko proposatutako zerrenda aurkeztuko dio, eta, hala dagokionean, ohore-domina jasotzeko zerrenda, pentsionatua eta bakarra, eta Irakaskuntza Merituarentzako atal bereziko Maisuaren ohorezko titulua atxikia izango duena.

2. Elkargo Ofizial bakoitzak, berriz, kulturari, irakaskuntzari, ikerketari edo Elkargoari berari eskainitako zerbitzu nabarmenagatik saria eta esker ona merezi duten pertsoneri Ohorezko Elkargokide titulua eman ahal izango die.

3. Gobernu Batzordeko kideek, egoera horretan dauden bitartean, ezin izango dute euren burua inongo sari edo ohore jasotzeko aurkeztu, eta beste inork ere ezin izango ditu horretarako proposatu.

III. KAPITULUA

Elkargoena

I. Atala: Organoak

22. artikulua *Elkargoko Organoak.*

1. Elkargo bakoitzak bi erabakitze organo ditu: Batzar Nagusia eta Gobernu Batzordea.

2. Batzar Nagusia da Elkargoko organo gorena. Bertan Estatutuen arabera hartutako erabakiek elkargokideak behartzen dituzte, Lanbide Elkargoei buruzko Legeko 8. artikulua aurreikusitakoa salbu.

3. Gobernu Batzordea Elkargoko ordezkari organoa da. Bertako kideek Elkargoa dagoen lurralde berean bizi behar dute eta Estatutu honetan aurreikusten den moduan hautatu behar dira.

II. Atala: Batzar Nagusia

23. artikulua *Osaera.*

Elkargo bateko Batzorde Orokorrean eskubide guztien jabe den kide orok parte hartu ahal izango dute, eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea izango dute.

24. artikulua *Eskuduntzak.*

1. Batzar Nagusiari dagokio:

- a) Elkargo bakoitzeko Estatutuak eta Barne Araudiak eta horien aldaketak lantzea, Lanbide Elkargoei buruzko Legearekin bat.

- b) Elkargoaren eskuduntzen eremuan ezarri beharreko arau orokorrak onartzea.
- c) Aurreko urteko diru sarrera eta gastuen kontu orokorra onartzea. Aldez aurretik kontu hartzaileen txostena eskuratu beharko du.
- d) Aurrekontu arruntak eta apartekoak onartzea. Horiek, aldez aurretik, elkargokide bakoitzari igorriko zaizkio deialdiarekin batera edo, besterik ezean, Batzar Nagusia egin aurreko hamabost egunean zehar ikusgai egongo dira.
- e) Elkargoko ondasunak inbertitzeko proposamenei buruzko erabakiak hartzea.
- f) Gobernu Batzordearen kudeaketari buruzko erabakia hartzea.
- g) Gobernu Batzordearen ekimenez gai zerrendan ageri diren puntuei buruzko erabakiak hartzea.
- h) 15. artikuluko 3. atalean ukitzen diren proposamenak ezagutu eta dagokion erabakia hartzea.
- i) Osatu diren arauzko atalen edo batzordeen txostena aintzat hartzea.

2. Bertaratutakoen gehiengoak Gobernu Batzordearen kudeaketa onartzen ez badu, horrek ezohiko Batzar Nagusia deia egin beharko du, hogeita hamar laneguneko epean, berresten den edo ez erabakitzeko.

25. artikulua *Bilerak.*

1. Batzar Nagusia ohiko edo ezohiko izaeraz bil daiteke.

2. Ohiko Batzar Nagusia urtean behin bilduko da, otsaileko azken igandea baino lehen. Ezohikorako deia, berriz, Gobernu Batzordeak egoki deritzon epean egingo da edo Estatutu honetako 15. artikuluko 3. atalean aurreikusten den kasuan.

3. Ohiko Batzar Nagusiaren deia hau egin baino gutxienez hamabost egun lehenago egin beharko da. Ezohikoena, berriz, gutxienez zortzi egun lehenago.

4. Batzar Nagusirako deia idatziz egingo zaio elkargokide bakoitzari (norbanako deia), eta gai zerrendaren berri emango zaio. Bertan jasotzen ez diren gaien inguruko erabakirik ezingo da hartu.

5. Ohiko Batzar Nagusiko gai zerrendan, nahitaez, 24. artikuluko 1. atalean adierazten diren c), d) eta f) puntuak jasoko dira eta, hala dagokionean, artikuluko eta atal bereko h) puntua. 15. artikuluko 3. atalean adierazten den bezala deituriko Ezohiko

Batzar Nagusiko gai zerrendan, berriz, eskatzaileek eztabaida daitezten exijitzen duten puntuak jasoko dira. Nolanahi ere, Gobernu Batzordeak, bere ekimenez, hainbat irizpen eta proposamen barnera ditzake, eta Batzar Nagusiari horien berri emango zaio.

6. Aldez aurretik eta jendaurrean finkatutako lokal, egun eta orduan, Batzar Nagusia osatuko da; lehenengo deialdian, elkargokideen gehiengo osoa bertaratzen bada, edo bigarren deialdian, hogeita hamar minutu geroago, bertaratuen edozein kopuru aski izanik.

7. Ezohiko Batzar Nagusiak hartutako erabakiek honako kasu hauetan bakarrik behartzen dute Gobernu Batzordea: 5.000 kide baino gutxiagoko Elkargoen kasuan, gutxienez kideen %15 bertaratu direnean, eta 5.000 kide baino gehiagoko Elkargoen kasuan, gutxienez kideen %7 bertaratu direnean.

26. artikulua Akta.

Batzar Nagusiak hiru kontu hartzaile aukeratuko ditu eta horiek, hamar eguneko epean, Dekanoaren eta Idazkariaren adostasunarekin, aktak onartuko dituzte. Ondorioz, akordioak betearazle bilakatuko dira, Lanbide Elkargoei buruzko Legeko 8. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe.

III. Atala: Gobernu Batzordeak: Osaketarako hauteskundeak.

27. artikulua Deialdia.

1. Lau urtean behin Elkargoen Kontseilu Orokorrak ohiko hauteskundeetarako deia egingo du, Elkargo guztietako Gobernu Batzordeetako kargu guztiak betetzeko.

2. Hauteskundeetarako deia, ohikoa edo ezohikoa, horiek egin baino gutxienez bi hilabete lehenago egingo da. Berdinketetan nola jokatu behar den aurreikusiko du, Elkargo bakoitzeko Estatutuak xedatzen duena salbu, agintealdien iraupena zehaztuko du eta hauteskunde prozesu guztiaren egutegi zehatza jasoko du.

28. artikulua *Hautesleak.*

1. Hauteskunde egunean dagokion Elkargoan izena emanda dauden guztiak hautesle izan daitezke, parte-hartze aske eta berdinez, baldin eta elkargoko eskubideak etenda ez baldin badituzte.

2. Hauteslea Elkargo bat baino gehiagoko kide baldin bada, bakar batean bozkatu ahal izango du, ikasturte horretan eta aurrekoan lanbidean ordu gehien jardun duela ziurta dezakeen lurraldekoan hain zuzen ere.

3. Hauteskunde egunaz aurretiko hogeita hamar egunetan, botoa emateko eskubidea duten kideen zerrenda iragarki taulan ikusgai jarriko du Elkargo bakoitzak.

4. Zerrenda ikusgai dagoen lehenengo zortzi egunetan elkargokideek erreklamazioak egiteko aukera izango dute. Horiek, Gobernu Batzordeak ebatzi beharko ditu hurrengo zortzi egunean zehar.

29. artikulua *Hautagaiak.*

1. Elkargokide guztiak izango dute hautagai izateko aukera honako baldintza hauek betetzen badituzte: hautesle izatea, legeen nahiz estatutuen araberrako debeku edo ezgaitasunik ez izatea, hauteskunde data aurretiko urriaren 31n, gutxienez, urtebete egin izana elkargokide gisa, eta zuzendaritza kargu bat eskuratu nahi duten Elkargoko lurralde eremuan gutxienez urtebetez bizi izatea.

2. Hauteskundeetarako deia egin ondorengo hogeita egun naturalen baitan, hautagaien proposamenak aurkeztu ahal izango dira Elkargoetan, interesdunak edo botoa emateko eskubidea duten hamar elkargokidek sinatuta. Hurrengo hiru lanegunetan, Elkargoek eta Ordezkaritzek proposatutako hautagaien zerrenda erakusgai jarri beharko dute, hurrengo bost egunetan bidezkoztat jotzen duten hautesleek zerrenda aurkaratzeko aukera izan dezaten (frogak aurkeztuz) edo hautesleek uko egiteko aukera izan dezaten. Gobernu Batzordeak lau eguneko epean hartuko ditu eginiko erreklamazioen inguruko erabakiak.

3. Erabaki horien aurkako helegitea Elkargoen Kontseilu Orokorrean aurkeztu

ahal izango da, hurrengo hiru egunen baitan. Bertako Lehendakariak beste hiru egunen buruan hartuko du erabakia.

4. Gobernu Batzordeak hautagaien inguruko kexak ebatzi dituzenean eta hurrengo bost lanegunen baitan, Kontseilu Orokorrari igorriko dizkio hautagaien zerrendak. Kontseiluko Lehendakariak, haren osoko bilkuraren izenean, hala dagokionean, hautagaiek elkargoan duten egoera egokiaren arabera bidezkoak diren objekzioak egingo ditu eta haien berri emango dio Elkargo bakoitzari, hiru eguneko epean.

5. Aipaturiko epean, Kontseilu Orokorra hautagaien zerrenden inguruko objekzioak ez balu, baliagarritzat hartuko dira.

6. Hauteskundearen deialdian iragartzen den datan, Gobernu Batzordeak hautagaien zerrenda ofizialak izendatuko ditu jendaurreko ekitaldian.

30. artikulua *Hauteskunde mahaiak.*

1. Hauteskunde mahaiak honako osaketa hau izango dute: Gobernu Batzordeak hautatutako Lehendakari bat, Idazkari bat eta bokal bat. Lehendakaria bertako kide izango da.

2. Elkargo bakoitzeko Gobernu Batzordeak hainbat hauteskunde mahai osatu ahal izango ditu. Honela, Elkargoak egoitza duen hiriaz gain, beste udalerririk batzuetan ere hauteskunde mahaiak ezarri ahal izango dira (Batzordearen iritziz, udalerririk horietan bizi den elkargokide kopuruak bertan hauteskunde mahaiak ezartzea justifikatzen duelako). Jendaurrean ipinitako hautesleen zerrendetan bakoitzak zein mahaitan bozkatu behar duen adieraziko da.

3. Hauteskundeetarako aurrez finkatu den lekuan eta egunean, eta horiek hasi baino ordubete lehenago, hauteskunde mahaiak eratuko dira.

4. Edozein hautagai edo hautagai zerrendak hauteskunde mahai bakoitzeko bi ikuskatzaile izendatzeko eskubidea izango du. Izendatuak elkargokide hautesleak izango dira. Gobernu Batzordeari ikuskatzaileen izendapenaren berri emango zaio, dagokion mahai osatu baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez.

31. artikulua *Hautaketaren formak eta hurrenkera.*

Botoa emateko eskubidea hainbat modutan erabili ahal izango da:

- a) Zuzenean, agiri bidez bere burua identifikatuz eta hautesleen zerrenda egiaztatuz.

Botoa txartel baten bidez emango da. Txartela alde zuri gutun azal batean sartuko da, botoa sekretupekoa dela bermatzeko. Hauteskundearen deialdian txartel eta gutun azalaren ezaugarriak zehaztuko dira.

- b) Posta ziurtatuz: Hautesleak txartela ohar edo seinalerik ez duen gutun-azal zuri batean sartuko du eta, itxi ostean, beste gutun-azal batean sartuko du NANaren fotokopiarekin batera. Bigarren gutun-azalaren hegalek erdigunean bildu behar dute. Hau guztia dagokion Elkargoko Dekanoari igorriko zaio, "Hauteskundeak" adieraziz, eta igorlearen eremuan izena, helbidea eta elkargokide zenbakia ipinuz. Atzealdea sinatuko da, sinadurak goiko hegala beste batekin gurutzatzeko moduan.

Gutun azal horiek hauteskunde eguna baino hogeita lau ordu lehenago jaso behar dira Elkargo Ofizialean. Posta bidezko botoen zaintza Gobernu Batzordeko Idazkariari dagokio. Idazkariak botoak hauteskunde mahaiari emango dizkio bozketa hasten den unean.

Bozketa amaitutakoan, postaz jasotako gutun-azalak irekiko dira eta bertako gutun-azal zuriak hautestontzian sartuko dira, hauteslearen nortasuna egiaztatu ostean.

Boto bikoizturik balego, zuzenean eta postaz emandakoa, azkena baliogabetuko da.

32. artikulua *Zenbaketa eta hauteskundeetako aktak.*

1. Hauteskundeak amaitutakoan, botoen zenbaketa burutuko da jendaurrean.
2. Hauteskunde txartel bakoitzean nulutzat joko dira izen irakurtezinak, zein

hautagaien aldekoak diren argi uzten ez dutenak eta hautagaiak ez diren pertsonenak (behintzat botoa ematen den karguari begira). Horrek guztiak ez du txartel bereko gainerako hautagaien baliozkotasunean eraginik izango.

3. Zenbaketa amaitutakoan, dagokion akta idatziko da eta mahaietako partaideek eta Ikuskatzaileek sinatuko dute, bidezkotzat jotzen diren helegiteak aurkezteko aukeraren kalterik gabe. Aktaren kopia bat botoa eman den lokalean utziko da ikusgai, beste bat Elkargoko Idazkariak hartuko du eta hirugarrena Kontseilu Orokorrari igorriko zaio urgente.

4. Hauteskunde ekitaldia udalerrri bat baino gehiagotan burutzen denean, botazioak burutu eta bosgarren lanegunean hauteskundeetarako deialdian jadanik zehazten zen lokal eta orduan jendaurreko ekitaldia burutuko da. Bertan, Gobernu Batzordeak, baliozko botoen zenbateko totala kontuan izanik, dagokion akta idatziko du. Akta honen kopia eskuetsia Kontseilu Orokorrari igorriko dio eta hauteskundeen emaitzak argitara emango ditu, hautatutakoen berri aditzera emanez.

33. artikulua *Erreklamazioak eta hauteskundeen onespina.*

1. Elkargoen Kontseilu Orokorrari dagokio edozein Elkargoko Gobernu Batzordeko hauteskundeak direla-eta izan litezkeen erreklamazioak ebaztea.

2. Erreklamazio horiek aurkezteko epea bost egunekoa izango da, hauteskunde egunetik aurrera. Dagokion Elkargoko Idazkaritzan aurkeztuko dira eta Gobernu Batzordeak Elkargoen Kontseilu Orokorrari igorriko dizkio berehalakoan, gehienez ere hogeita hamar egunen buruan horien inguruko erabakia har dezan.

3. Erreklamaziorik ez balego edo horiek konpondutakoan, Elkargoen Kontseilu Orokorrak hauteskundeak era zilegian burututzat hartuko ditu, eta Elkargoei, autonomia organoari eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari horren berri emango die.

34. artikulua *Karguaz jabetzea.*

1. Elkargoan Kontseiluko Lehendakariaren eskutik hauteskundeen onarpen komunikatua (hauteskundeak era zilegian burutu direla agertzen duena) jaso eta hamabost egunen buruan, Gobernu Batzordeko hautetsi berriek karguaz jabetu beharko dute.

2. Karguaz aipaturiko epean jabetzea ezinezkoa balitz, Kontseilu Orokorrak muga egun berri bat finkatuko du, Gobernu Batzorde berriarekin adostasunean.

3. Hautatutako Batzordeko kideren bat karguaz gainerakoak jabetzen diren egun berean ezin izango balitz jabetu, Dekano berriak ahalik eta azkarren emango dio.

Osaketa, funtzionamendua eta eskuduntzak

35. artikulua *Osaketa.*

1. Elkargoetako Gobernu Batzordeak honako gutxienerako osaera izango dute: Dekano bat, Dekanorde bat, Idazkari bat, Diruzain bat, Kontu-hartzaile bat, Letretako Bokal bat eta Zientzietako beste bat. Elkargo bakoitzeko Estatutuek beste kargu batzuk sortu ahal izango dituzte.

2. Gobernu Batzordeetako kideek nor bere Elkargoak eskumena duen lurraldean izango duten euren legezko bizilekua.

36. artikulua *Uzteak eta ordezkapenak.*

1. Gobernu Batzordea uzteko arrazoiak honako hauek izango dira:

- a) Heriotza.
- b) Karguan jarduteko ezgaitzen duen gaixotasuna.
- c) Ezinbestez uko egitea.
- d) Egoitza aldatzea, Elkargoaren lurralde eremutik kanpora.
- e) Ebazpen irmoa diziplina espedientean.
- f) Elkargokide gisa Elkargoa uztea.
- g) Gobernu Batzordearen bileretara justifikatu gabe segidan hiru aldiz edo segidarik gabe sei aldiz ez joatea.

2. Karguen erdiak baino gehiago bete gabe geratzen badira, Lanbide Elkargoei buruzko Legean xedaturikoa beteko da.

37. artikulua *Eskuduntzak.*

Elkargo bakoitzeko Gobernu Batzordeari dagokio beronen zuzendaritza eta administrazioa. Indarrean dagoen lege araudiak Elkargo Ofizial horiei ematen dizkien eskuduntza eta funtzioak eta elkargokideen Batzar Nagusiak Estatutuen bidez hartzen dituen erabakiak ahalik eta ondoen betetzeaz arduratuko da (bakoitza dagokion eremuan).

38. artikulua *Karguen eskuduntzak.*

1. Dekanoa: Gobernu Batzordearen ordezkaria izango da eta, hortaz, Elkargoarena. Ahalordeak emateko ahalmena izango du, bere sinadurarekin erabakien exekuzioa edo betetzea baimenduko du (Lanbide Elkargoei buruzko Legeko 8. artikuluan aurreikusitakoa salbu), paperak antolatuko ditu, Batzorde Orokorrak eta Gobernu Batzordeko bilerak deituko ditu eta berauetako buru izateaz gain gai zerrendak ere finkatuko ditu. Gaixorik edo ezinduta dagoenean edo bertaratu ezin denean (aldi baterako) Dekanordeak ordezkatzeko du eta, honenik ezean, Dekanoak bere ordezkari izendatzen duen Batzordeko kideak.

2. Dekanordea: Gobernu Batzordeak edo Dekanoak, Elkargoaren ordenaren barruan, eskuordetu dizkion funtzioak beteko ditu eta azken hori ordezkatzeko du gaixorik edo ezinduta dagoenean edo bertaratu ezin denean. Dekano eta Dekanorde karguak hutsik daudenean, Dekanorde eginkizuna Gobernu Batzordeko kide batek beteko du, gainerakoek aukeratzen dutenak hain zuzen ere.

3. Idazkaria: eskaerak eta komunikazioak jaso eta bideratuko ditu, dagokionari horren berri emanaz. Bulegoak zuzenduko ditu, eta bere sinadura eta Dekanoaren oniritziarekin, hala dagokionean, akordio eta ziurtagiriei baliozkotasuna emango zaie. Elkargoko zigilua, liburuak eta dokumentazioa zainduko ditu. Gainera, administrazioko eta mendeko langileen Nagusia izango da.

4. Diruzaina: Elkargoko funtsak bildu eta zainduko ditu. Dekanoak egiten dituen igorpenak ordainduko ditu, Kontu hartzaileak jasota utzi aurretik. Hilero, aurreko hilabeteko diru sarrera eta gastuen kontu orokorra egingo du, eta urtero, ekitaldi ekonomikokoa. Batzar Nagusiak onar ditzan Gobernu Batzordeak aurkeztu behar dituen urteko aurrekontuak idatziko ditu. Dirua sartu eta atera egingo du kontu

korronteetatik, Dekanoarekin batera. Elkargoko ondasunen inbentario zehatza burutuko du eta horien administratzailea izango da.

5. Kontu hartzailea: Sarrera eta irteeren berri utziko du jasota, baita Dekanoak egiten dituen igorpen guztien berri ere. Hilero Gobernu Batzordeari kontuen laburpena aurkeztuko dio, kargua Diruzainari egiteko. Mutualitateari dagokionez, modu berean jokatuko du, Elkargoak kudeatzen baldin badu. Diruzaina edo Kontu hartzailea gaixorik baleude edo bertaratuko ez balira, Dekanoak proposatuta, Gobernu Batzordeak erabakitako Diputatuek ordezkatzeko lituzke.

39. artikulua *Bilerak.*

Gobernu Batzordea gutxienez hilean behin bilduko da eskolaldiaren barruan. Gainera, beharrezko irizten diolako edo Batzordeko kideen herenak hala eskatu duelako, Dekanoak bilera deitzen duen aldi bakoitzean ere bilduko da. Erabaki baliagarriak gai zerrendan agertzen diren puntuen inguruan bakarrik hartu ahal izango dira eta botoen gehiengoarekin.

Akordioak betearazle bilakatuko dira berehala, akta hurrengo Batzordean onartzeari utzi gabe. Erabakiak baliagarriak izan daitezen, Batzordeko kideen erdiak baino gehiagok hartu beharko ditu. Zenbaketarako ez dira bete gabeko postuak kontuan izango.

Batzordeko bileretara ez bertaratzea Estatutu honetako 36. artikuluaaren arabera zigortuko da.

Gobernu Batzordeak, hala nahi izanez gero, bidezkotzat jotzen dituen pertsonak gonbidatu ahal izango ditu bileretara, botorik gabeko aholkulari moduan.

IV. KAPITULUA

Ekonomia eta administrazio araubidea

40. artikulua *Zuzenbide eta ondare ahalmena.*

Elkargo Ofizial bakoitzak gaitasun juridiko osoa du ekonomia eta ondare arloan.

41. artikulua *Diru sarrerak.*

1. Ondokoak Elkargoen baliabide ekonomikoak izango dira:
 - a) Edozein kontzeptugatik jasotako kuotak.
 - b) Agiriak egin, sinadurak, laudoak eta irizpenak legezkatzeagatik eta abarregatik lortutako diru baliabideak.
 - c) Inprimakiak eta aktak egiteagatik, eta lanbidean jarduteko baimenak emateagatik lortutako diru baliabideak.
 - d) Argitalpenek ematen dituzten mozkinak.
 - e) Jasotako dohainak.
 - f) Bertako ondarea osatzen duten ondasunek sor ditzaketen edozein motatako sarrerak, errentak eta mozkinak.
 - g) Legez lor daitezkeen gainerako diru sarrerak.

2. Elkargo Ofizialek bertako kideentzako ohiko kuotak finkatuko dituzte. Horiek ez dira Kontseilu Orokorrak adierazitako kuota minimoak baino apalagoak izango.

42. artikulua *Zentsoreak.*

Elkargo bakoitzean urtero bi Zentsore izango dira. Haiek, kontuak onartzeko Batzar Nagusia bildu baino hamabost egun lehenago, euren eskura izango dituzte kitatutako urtealdiko kontuak, diru sarrera eta gastuen frogagiriak, dagozkien ordainketa aginduak eta, hala dagokionean, haien akordio erabakigarriak. Aipaturiko kontuetan ustez izandako irregulartasunak direla-eta, elkargokideek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Zentsoreen aurrean (Batzar Nagusia biltzeko zazpi egun baino gehiago falta direnean). Zentsoreek erreklamazioak onartu edo atzera bota diren jakinaraziko diote idatziz Batzar Nagusiari. Zentsoreak modu automatikoan izendatuko dira, oinarri bezala antzinatasunaren arabera ordenatutako elkargokideen zerrenda hartuz. Zerrenda, aldez aurretik dagokion Elkargoak jendaurrean jarriko duena, bi zatitan banatuko da, eta bakoitzean lehen elkargokidea Zentsore jabea izango da eta bigarrena, ordezkoa. Zentsore gisa jardun izanak txanda pasarazten du zerrendetan. Zentsore izatea eta Gobernu Batzordeko kide izatea bateraezinak dira.

43. artikulua *Administrazioko eta mendeko langileak.*

Elkargo Ofizialek, probintzia mailakoek eta Ordezkaritzek beharrezkok dituzten bulegoko eta mendeko langileak izango dituzte. Horien ordainsariak aurrekontuetako gastuen atalean jasoko dira.

V. KAPITULUA

Araubide Juridikoa

44. artikulua *Arau orokorrak eta helegiteak.*

1. Elkargoetako gobernuaren ekintzak, Estatutu honetan zehazki aurreikusten ez denari dagokionez, Administrazio Prozedurako Legeko arauak bete beharko ditu, aplikagarriak diren heinean.

2. Elkargoen ekintzen baliozkotasunari dagokionez, Administrazioko Zuzenbideari lotutakoak badira, Lanbide Elkargoei buruzko Legearen 8. artikuluan eta, subsidiarioki, Administrazio Prozedurako Legean xedatutakoa aplikatuko da.

3. Batzar Nagusien edo Gobernu Batzordeen erabakiak eta xedapenak, Administrazioko Zuzenbideari lotutakoak badira, interesdunek errekurritu ahal izango dituzte Administrazio Prozedurako Legean jasotzen diren gorako errekurtsoei buruzko xedapenei jarraituz, Estatutu honetan espresuki jasotzen diren salbuespenak izan ezik.

4. Kontseilu Orokorraren ekintzei dagokienez, Administrazioko Zuzenbideari lotutakoak badira, birjartzeko errekurtsua eta berrikusteko errekurtsu berezia aurkez daitezke euren kontra. Errekurtsu horien aurkezpena, izapidetzea eta ebazpena Administrazio Prozedurako Legean xedatzen denaren arabera burutuko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko xedapenen kalterik gabe, birjartzeko helegiteari dagokionez hain zuzen ere. Esanbidezko ebazpenak edo isilduzko erabakiak, birjartzeko errekurtsuari dagokionez, administrazio bidea amaituko du eta, kasu horretan, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu ahal izango da.

VI. KAPITULUA

Kontseilu Orokorraren eta Elkargoen arteko harremanak

45. artikulua *Kontseilu Orokorra*

Kontseilu Orokorrean honako hauek hartuko dute parte: Autonomia Erkidego bakoitzeko Elkargo Ofizialetako Dekanoek eta elkargokide kopuruaren arabera dagozkien kontseilariak. Honela: 3000 elkargokidegatik edo 4999 arteko zatikiagatik, kontseilari bat gehiago. 5000 elkargokidegatik edo 7999 arteko zatikiagatik, bi kontseilari gehiago. 8000 elkargokidegatik edo 11999 arteko zatikiagatik, hiru kontseilari gehiago. 12000 elkargokidegatik edo 16999 arteko zatikiagatik, lau kontseilari gehiago. Eta 17000 elkargokidegatik edo 22999 arteko zatikiagatik, bost kontseilari gehiago.

Aurreko paragrafoan aipatu diren kontseilarien hautaketa Gobernu Batzordeak eraturakoan egingo da, gehienez ere hilabeteko epean. Hautesleak eta hautagaiak Autonomia Erkidegoko eta bertako Elkargoetako Gobernu Batzordeetako kideak izango dira.

Era berean, Mutualitatearen Administrazio Kontseiluko Lehendakaria ere Elkargoen Kontseilu Orokorreko kide izango da.

46. artikulua *Kontseilu Orokorraren diru sarrerak*

Elkargoek Kontseilu Orokorraren Diruzaintzan honen Estatutuan xedatzen denaren arabera diru sarrerak egin beharko dituzte. Dirua sartzeko prozedura Kontseiluko batzarraren erabakiaren bidez zehaztuko da.

47. artikulua *Koordinazioa*

1. Elkargoek Kontseilu Orokorrak eskatzen dizkien datu guztiak emango dizkiote, bere helburuak bete ditzan.

2. Kontseilu Orokorrak aholkularitza eta informazio zerbitzuak eskainiko dizkie Elkargoei, hobeto funtzionatu eta euren helburuak betetzearren.

48. artikulua *Lanbide Elkargoa sortzeko proposamena*

Lanbide Elkargoei buruzko Legeko 4.2. artikulua babespean, Kontseilu Orokorrak, Elkargo interesdunak hala eskatuta, Lanbide Elkargo berri baten sorrera proposatu ahal izango du, dagokion lanbide atalean oinarrituz.

VII. KAPITULUA

Elkargoen edo Ordezkaritzen desegiteak

49. artikulua *Desegitea izapidetzea.*

1. Elkargo Ofizial bat beronen helburuak eten egin direlako bakarrik desegin ahal izango da, Batzar Nagusiak erabakia hartu eta Kontseilu Orokorrak berretsi ondoren. Hala dagokionean, Lanbide Elkargoei buruzko Legeko 4. artikuluko 2. paragrafoan xedaturikoaren arabera hartuko da erabaki hau. Elkargoaren obligazio guztiak kitatu ondoren, soberako ondasunak Kontseilu Orokorrari eta Mutualitateari helaraziko zaizkio, eta azken horri mutualista kopuruaren zati proportzionala dagokio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa.- Autonomia Erkidego batean Doktore eta Lizentziadunen Elkargo Ofizialik osatzen ez den bitartean, bertan bizi diren elkargokideek jadanik izena emanda dauden Elkargoarekin lotuta jarraituko dute. Hala ere, gehiengoz, eta probintzia bakoitzaren baitan, beste Elkargo Ofizial mugakide batekin lotzea ere erabaki dezakete.

Bigarrena.- Gobernu Batzordeak berritzeko Estatutu honek dioenaren arabera egiten diren lehen hauteskundeetan kargu guztiak hautatuko dira eta ez aurretiko Estatutuen arabera utzi beharreko karguak bakarrik.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bertako Autonomia Estatutuei jarraiki, Lanbide Elkargoei dagokienez eskuduntza osoa duten Autonomia Erkidegoen kasuan, Autonomia Erkidegoko arauak xedaturikoari jarraituko zaio. Xede horretarako arau autonomikorik ez balego, berriz, lurralde eremu horretan errotutako Lanbide Elkargoek Estatu mailako zuzenbideak

governatuko ditu. Estatu mailako zuzenbideak, nolana ere, izaera osagarria izango du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen da 1953ko ekainaren 5eko Dekretua, Filosofia eta Letretako eta Zientzietako Doktore eta Lizentziadunen Elkargo Ofizialen Estatutua onartu zuena eta 1955eko martxoaren 25eko, 1959ko azaroaren 12ko, 1965eko otsailaren 18ko, 1973ko azaroaren 9ko eta 1976ko urriaren 30eko Dekretuek aldatu zutena. Era berean, Errege Dekretu honetan xedatutakoaren aurka egiten duen maila bereko edo apalagoko edozein xedapen ere indargabetuta geratzen da.